FONTES
LINGVÆ VASCONVM
stvdia et
docvmenta

SEPARATA

Año XLVI • Número 118 • 2014

Birformulatzaile laburbiltzaileen balio diskurtsiboen azterketa corpusean oinarrituta

M.ª Jesús Aranzabe

José M.ª Arriola

Gobierno de Navarra

FONTES
LINGVÆ VASCONVM
stvdia et docvmenta

Hacia una periodización de la fragmentación del euskera occidental
Gontzal Aldai 221

Basaburu Txikiko euskararen lekukoak (I)
Gorka Lekaroz 247

Batallonaren ordena. Doneztebe, 1840
Juan Jose Zubiri 279

Aipuaren aipuari tiraka. Melchor Oiangurenen euskal gramatiken eta hiztegi hirukoitzaren bila euskalaritzaren hastapenetan
Mikel Aizpuru 321

Birformulatzaile laburbiltzaileen balio diskurtsiboen azterketa corpusean oinarrituta
M.ª Jesús Aranzabe / José M.ª Arriola 339

Las mujeres de *El amigo congelado* de Joseba Sarrionandia: la utilización de personajes femeninos para hacer frente a los límites del lenguaje
Eider Rodriguez 359

Topónimos alaveses de base antroponímica que tienen *huri* o *villa* como formante
Patxi Salaberri Zaratiegi 367

Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan
(eta 9 – Aditzaz zerbait Elkanoko aldaerarekiko erkaketan)
Koldo Artola 393

Año XLVI
Número 118
2014

Gobierno de Navarra

Birformulatzaile laburbiltzaileen balio diskurtsiboen azterketa corpusean oinarrituta

M.ª Jesús Aranzabe*/ Jose M.ª Arriola*

SARRERA

Diskurtso-markatzaileekiko interesa 80. hamarkadaren erdialdetik badatorkigu ere, gaur egun, areagotu egin da horien azterketak egiteko interesa. Hala ere, ez da batasunik izan ez denominazio aldetik, ez definizio aldetik. Izan ere, azterketa horiei ekiteko ikuspuntuak era askotarikoak izan dira. Alberdik eta Ezeizak (2012: 7) egiten duten diskurtso-markatzaileei buruzko laburbiltze-lanean edota (Martí Sánchez, 2011: 2) lanean ere, termino-aniztasunaren ideia azpimarratzeaz gain, aniztasun horren atzean hurbilpen teoriko eta kontzeptualizazio desberdinak ezkutatu ohi direla ohartarazten gaituzte.

Ildo beretik, Díaz-ek (2009: 148) Martín-Zorraquino-ren (1992) sintesilana aipatzen du eta, lan horretan egindako aurrerapenak, konpontzeke dauden arazoak eta ikuspegi desberdinetatik aztertu izanak sortu duen nahasmena nabarmentzearekin batera, emankorrak izango liratekeen zenbait ikerlerro ere proposatzen ditu. Ikerlerro horiek guztiak erakargarriak diren arren, azterlan honetan birformulatzaile laburbiltzaileen deskribapen sinkronikoa dugu xede, bereziki, horien oinarrizko balioak deskribatu nahi genituzke. Azterlan horretan, irizpide teoriko nagusia litzateke pragmatikan kokatzen garela, alegia, markatzaileen berezko zeregina hartzaileari komunikazioa

* Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).

prozesatzen erraztuko dioten seinaleak ematea litzateke. Hori dela eta, komunikazioa bideratzen dutela esango dugu eta, bideratze-lan horretan zer balio duten deskribatzea dugu xede.

Martín-Zorraquinok eta Portolés-Lázarok (1999: 4057) ere honela definitzen dituzte diskurtso-markatzaileak:

> Los «marcadores del discurso» son unidades lingüísticas invariables, no ejercen una función sintáctica en el marco de la predicación oracional –son, pues, elementos marginales– y poseen un cometido coincidente en el discurso: el de guiar, de acuerdo con sus propiedades morfosintácticas, semánticas y pragmáticas, las inferencias que se realizan en la comunicación.

Ildo horretatik, hizkuntz gaitasunaren izaera modu zehatzagoan ulertzeko baliagarri izango diren azterketak egin dira. Esate baterako, neurozientziaren teknikak erabiliz (Loureda, 2010: 97-98), itzulpenaren arloan egin zuten azterketan, erakutsi zuten diskurtso-markatzaileak oso lagungarriak direla testua interpretatzerakoan eta, horrez gain, testuaren informazio-zama arintzen dutela. Izan ere, testuren batean diskurtso-markatzailerik ez balego, askoz ere gehiagotan gelditu beharko ginateke testua ulertu ahal izateko. Bereziki, garrantzitsuak dira berehalako itzulpenetan, interpreteak edo itzultzaileak arreta berezia jarriko baitu diskurtso-markatzaileetan.

Hala, diskurtso-markatzaileak erabiltzen dira erlazionatuta dauden testuzatien arteko lotura zein eragiketaren bitartez (azalpena, zuzenketa, laburpena eta zehaztasuna) gauzatu den erakusteko. Eragiketa horiek guztiek osatzen dute birformulazioa; birformulazioaren bitartez aurreko atalera itzultzen da atal hori beste era batera adierazteko. Honela definitzen dute birformulazioa Cuencak eta Bachek (2007: 149-150):

> Reformulation can be defined as a process of textual reinterpretation: the speaker or writer reelaborates a previous fragment of discourse presenting its contents in a different way. Reformulation is a complex discourse function by which the speaker re-expresses an idea in order to be more specific, and «facilitate the hearer's understanding of the original» (Blakemore, 1993:107). Consequently, this discourse operation implies an autoreflection about language and it is a clear sign of the metacommunicative function of language.

Laburbilduz, birformulazioa ez da diskurtso-funtzio sinplea, oso konplexua baizik. Halaber, alderdi komunikatiboan eragin nabarmena du; testuaren kohesioa areagotzen du eta diskurtsoaren garapena errazten du testuak izan ditzakeen komunikazio-arazoak saihesten lagunduz.

Birformulatzaileen sailkapenari dagokionez, euskal lanetan dugun ia erabateko hutsunea kontuan izanik, gaztelaniazko lanak hartu ditugu oinarri, horrela, (Martín-Zorraquino eta Portolés-Lázaro, 1999: 4121; Martí Sánchez, 2008) lanen arabera, birformulatzaileak lau motatakoak izan daitezke: esplikatiboak, zuzentzaileak, urruntzaileak eta laburbiltzaileak. Bestalde, Garcia-Azkoagak (2013: 197) esaten duen moduan, parafrastiko/ez-parafrastiko irizpidea hartzen dute aintzat birfomulatzaileak sailkatzerakoan beste hizkuntzalari hauek (Roulet, 1987; Gülich eta Kotschi, 1983, 1987, 1995; Kotschi, 1996; Rossari, 1994; Martín-Zorraquino eta Portolés-Lázaro, 1999). Birformulazio parafrastikoa gertatzen da markatzaileak baliokidetasun-erlazioa ezartzen duenean enuntziatuen artean eta birformulazio ez-parafrasti-

koa, berriz, markatzaileak erreferentziatutako atalarekiko birformulatutako atalaren adierazpenaren ikuspuntu-aldaketa ezartzen duenean eta era berean bi atalen artean maila desberdinekoa izan daitekeen urruntasuna ezartzen duenean.

Saiakera teorikoen zailtasunez ere ohartarazten gaitu (*Ibid.*, p. 195) eta, Martin-Zorraquinoren eta Portolés-Lázaroren lanean (1999) egiten den birformulatzaileen sailkapena (1. taula) hartzen du bere lanaren oinarri gisa.

1. taula.
Birformulatzaileak Martin-Zorraquinoren eta Portolés-Lázaroren lanean (1999)

Diskurtso markatzaileak		
Funtzio diskurtsiboa	**Esanahia**	**Gaztelaniazko hizkuntza forma**
Birformulatzaileak	Esplikatiboak	*O sea, es decir, esto es, a saber, etc.* *Mejor dicho, mejor aún*
	Zuzentzaileak	*Mejor dicho, mejor aún, más bien, etc.*
	Urruntzaileak	*En cualquier caso, en todo caso, de todos modos, etc.*
	Laburbiltzaileak	*En suma, en conclusión, en definitiva, en fin, al fin y al cabo, etc.*

Sailkapenak sailkapen, Aschenberg-ek eta Loureda-k (2011: 13) erakusten digute diskurtsoaren egitura eta pragmatika kontuan hartzen baditugu, diskurtso-markatzaileek oinarrizko ezaugarri hauek dituztela:

> Los marcadores discursivos tienen sus propias funciones y existen múltiples diferencias entre los diferentes subgrupos y elementos. Sin embargo, todos ellos tienen en común varias características fundamentales: su significado procedimental (en mayor o menor grado), su papel de guías de las inferencias y, en muchos casos, su papel de organizadores de la estructura discursiva (Murillo, 2010: 258).

Sailkapen horretatik, birformulatzaile laburbiltzaileak izango ditugu aztergai. Azterlan hori euskarazko birformulatzaileen hiztegia edo antzeko lan bat Interneten kontsulta modura jartzea helburu duen EUDIMA proiektuan[1] kokatzen da. Horrela, bada, gure egitekoa izan da *azken batean*,

[1] Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) –Unibertsitatea-Gizartea modalitatean– finantzatu duen US10/10 Euskarazko diskurtso-markatzaileen hiztegia (I)/Diccionario de marcadores discursivos del euskera (I) ikerketa-proiektua da. Ikerketa-proiektu hori Elhuyar Fundazioarekin eta Euskal Irrati Telebistarekin (EITB) sinatutako lankidetza-hitzarmenei esker garatu genuen.

azken buruan, *azken finean*, *hitz batean*, *hitz bitan esateko*, *hitz gutxitan*, *laburbilduz* eta *labur esanda* birformulatzaile laburbiltzaileek izan ditzaketen balioak zehaztea.

Izan ere, euskarazko gramatiketan, testu- eta estilo-liburuetan nahiz hizkuntza-irakaskuntzetako metodoetan oso gutxitan jorratu izan dira. Eta jorratu direnen artean behin baino gehiagotan oso gainetik baino ez dira aipatzen, adibidez Sareko Euskal Gramatikan[2] honela esaten da laburbiltzaileei buruz: «Diskurtsoan eten bat egiten da, aurretik esandakoa bildu nahian edo. Eta holako lotura egiten dute lokailu hauek. *Laburbiltzaileak* deituko ditugu. Hauetan *laburtuz*, *labur bilduz*, *azken batean*, *azken finean*… bezalako lotura hitz eta egiturak erabiltzen ditugu».

Agirreren gramatikan (1991: 964) ere jorratzen dira laburbiltzaileak; koordinaketa izeneko atalean, koordinaketa determinatiboaren funtzioen artean aipatzen du laburpena:

> Argudiaketaren funtzioetako beste bat, laburpen, bildura edo emaitza gisa diskurtsoaren haria laburbiltzea litzateke, hitz gutxitan adierazkizuna emanez. Esapide arruntenei lotuz, LABUR, LABURKI, LABUR ESAN, LABUR BEHARREZ, LABUR ZURREAN eta HITZ LABURRETAN dira, zentzu batean, maizenik erabiliak, enuntziatu biltzaile aposatuaren aurkezle gisa ageririk, bakanka tarte eta azkenetan kokatzen den arren.

Euskaltzaindiak (2008: 33), berriz, testu-antolatzaileez ari dela, birformulatzaileen artean, honako laburbiltzaile hauek jasotzen ditu: *ondorioz, azken batean, azken finean...*

Hori guztia kontuan hartuta, artikulu honetan, birformulatzaile laburbiltzaileen erabilerak eta balio nagusiak zehaztuko ditugu corpusean oinarrituta. Sarrera honen ondoren, beraz, 1. atalean oinarri metodologikoak aipatuko ditugu azterketarako erabili ditugun corpusa eta arakatzailea azalduz; 2. atalean, birformulatzaile laburbiltzaileen erabilera diskurtsoan zein den aztertuko dugu laburbiltzaileen balioak zehaztuz eta, amaitzeko, ondorioak azalduko ditugu 3. atalean.

1. OINARRI METODOLOGIKOAK

Birformulatzaile laburbiltzaileak aztertzeko, berariaz prestaturiko EUDIMA corpusa eta corpusa arakatzeko tresna[3] izan ditugu eta, horrez gain, laburbiltzaileei buruzko bibliografia ere aztertu dugu, bereziki inguruko hizkuntzena. Hartara, corpusetako adibideek gidatutako azterketa eta lan teorikoek proposaturikoa uztartu ditugu.

1.1. EUDIMA corpusa, arakatzailea eta laburbiltzaileen banaketa

EUDIMA corpusa euskara estandarrean idatzitako 62,6 milioi testu-hitzek osatzen dute eta 2. taulak erakusten duen moduan dago antolatuta. Testu horiek hainbat motatakoak dira; testu idatzien artean ditugu, besteak beste, zien-

[2] Euskara Institutua, EHU, «Diskurtso markatzaileak», *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, [www.ehu.es/seg] (2013ko azaroaren 26an egindako kontsulta).

[3] Arakatzailea Ametzagaiña I+G+b taldeko Josu Landak garatu du, EUDIMA proiektuaren beharretara egokituz: [http://www.ehu.es/ehg/eudima/corpusa/].

tzia-dibulgaziokoak, akademikoak, lege-testuak, saiakera eta kazetaritzakoak, eta ahozkoetan, berriz, Goenkale corpusa eta Euskal Telebistako dokumentalei dagokiena. Edozeinetara, oreka lortu nahi izan da jatorrizko testuen eta testu itzulien artean.

2. taula.
EUDIMA corpusaren osaera (Alberdi, 2011: 303)

ZIO corpusa (Zientzia Irakurle Ororentzat) [ZIO]	1,0 milioi testu hitz
EHUko eskuliburu itzuliak [EHU]	5,5 milioi testu hitz
Zuzenbidea/lege-testuak [Zuzenbidea-LT]	4,1 milioi testu hitz
Zuzenbidea/testu akademikoak [Zuzenbidea-TA]	2,5 milioi testu hitz
Pentsamenduaren Klasikoak [PKC]	10,7 milioi testu hitz
Ereduzko Prosa Dinamikoko liburuak [EPD liburuak]	10,2 milioi testu hitz
Ereduzko Prosa Dinamikoko prentsa [EPD prentsa]	10,5 milioi testu hitz
ZT Corpusa (Zientzia eta Teknologiaren Corpusa) [ZTC]	6,6 milioi testu hitz
ETBko dokumentalak	0,5 milioi testu hitz
Goenkale corpusa	11,0 milioi testu hitz
GUZTIRA	62,6 milioi testu hitz
Jatorrizkoak	35,7 milioi testu hitz
Itzulpenak	26,9 milioi testu hitz
GUZTIRA	62,6 milioi testu hitz

Corpusa aztertzerakoan, agerpenek diskurtso-markatzaile horien joerak erakutsiko dizkigute.

Corpus horretako adibideak aztertzeko baliatu dugun corpus-arakatzaileak diskurtso-markatzaileen zerrenda bat du abiapuntu. Hala ere, arakatzaile horrek eskaintzen du markatzaile berriak definitzeko aukera. Zerrenda hori azterketa linguistikoen ondorio izan da; alegia, gaztelaniazko diskurtso-markatzaileen hiztegiak eta lan teorikoak izan ditugu abiapuntu eta, horien euskarazko parekoak behintzat aztertzea xede. Lana zehazte aldera, lan horietatik ateratako zerrendak aztertu ondoren, multzo bakoitzeko maiztasun handieneko markatzaileak aukeratu ditugu. Beraz, arakatzaileak aurrez zehaztutako markatzaile horiek EUDIMA corpusean dituzten agerpenak eskaintzen dizkigu, bai banaka, bai multzoka. Esaterako, arakatzailearen interfazea nolakoa den erakusten duen 1. irudiaren ezkerraldean, aztergai ditugun birformulatzaileak ageri dira alfabetikoki zerrendatuta eta bakoitzak duen agerpen kopurua zehaztuta. Agerpen horiek corpusen arabera banatuta ageri dira; 1. irudi horretan, *laburbilduz* laburbiltzailearen banaketa ageri da.

1. irudia.
Arakatzailea. EUDIMA corpuseko adibideak aztertzeko baliatu dugun tresna



Adibideak aztertzerakoan, laburbiltzailea agertzen den testu-zatia eta, ondoren jarraitzen duen testua ere eskaintzen dizkigu arakatzaileak. Oro har, esan daiteke testuinguru nahikoa eta egokia dela horien azterketarako; baina zenbait kasutan, zuzenean testuinguru zabalagora jo behar izan dugu interpretazio pragmatikoa egin ahal izateko.

Bestalde, bilaketa zehaztu nahi izanez gero, diskurtso-markatzailea zein testuingurutan aztertu nahi den adieraz daiteke honelako testuinguru-murrizketak eginez:

- Puntuazio-marken bitartez gauzatzen den etena aurretik, ondotik edo bietan adieraziz.
- Eten mota zehaztuz: hasiera, bukaera, aurretik koma, ondotik koma, koma bietan.

Baliabide eta tresna horiek erabilita, aztergai ditugun 8 birformulatzaile laburbiltzaileak corpus horretan nola banaturik agertzen diren jasotzen du 2. irudiak:

2. irudia.
Laburbiltzaileak EUDIMA corpuseko jatorrizko testuetan eta itzulpenetan



Dena den, kontuan hartu behar dugu datu horiek, banaketaren ideia bat eskaintzen badute ere, ez direla oso zehatzak, zenbaitetan ez baitira diskurtso-markatzaileak nahiz eta formaz oso antzekoak diren. Esaterako, (1) eta (2) adibideetan ikusten den moduan, *azken buruan* ez da diskurtso-markatzailea testuinguru horretan; sintagma horrek kokalekua adierazten du eta, ikusi batera, puntuazio-markez inguraturik ez egotea izan daiteke diskurtso-markatzaile ez den seinale:

(1) Judutar itxura du eta judutarren kontuak kontatzen ditu. Judutarra ote da benaz? Autobusa hartu behar nuen etxera bueltatzeko. Urrundik bistaratu nuen, eta lasterka iritsi nintzen. Gutxirengatik ez zidan ihes egin. Ordaindu, korridorearen *azken buruan* zegoen eserlekuan eseri eta jakako patrikan sartu nuen eskua. Eskularru bat falta zitzaidan, korrika saioan eroria, nonbait. Ze erraz galtzen diren eskularru aparatosoak eta bufandak. Prenda isilegiak dira, elurra bezala erortzen direlako lurrera, mara-mara edo mallo-mallo. [EPD lib., Neguko zirkua, Harkaitz Cano (Susa, 2005.) Orr.: 12].

(2) TAKE 52. JASON: Dendetan aterpeturik, gizonkeriatan hasi gabe, irauten bazuten, aurkituko genituen eta handik atera. TAKE 53. DANIELE: Arazo bat geneukan eta irtenbide bakarra itzultzea zen. Rangerren bulegoan, bidearen *azken buruan*, telefono bat zegoen eta bagenekiela hara joaten bagenekielakoan geunden. [ETB doku., NG - Storm of the century, NG26].

Aztertu dugun corpusean, *hitz batean* ez da diskurtso-markatzailea etenik gabeko testuinguruetan oro har, (3) adibidean ikus daitekeen bezala:

(3) Bururik eta buruari loturiko datu-hodirik ezean, jatorrizko fly aditzaren forma irregularrak, hots, flew eta flown, behereneko mailan gelditzen dira giltzapeturik, eta ezin dira bor-bor igo hitz osoari eransteko. Lehenaldiko formak - ed gehiturik eratzeko arau erregularra sartzen da orduan, eta hala sortzen da flied out forma. Fly out aditzaren irregulartasuna neutralizatzen duena, hortaz, ez da haren esanahi espezializatua, baizik eta aditza ez den *hitz batean* oinarrituriko aditz bat izatea. [ZIO, Hizkuntza-sena, Steven Pinker / Garikoitz Knörr (EHU, 2010), 151. or.)].

Hitz gutxitan ez da diskurtso-markatzailea, esaterako, (4) adibidean:

(4) Bere azken urteetan, denbora asko eman zuen Dirac-ek lurbira osoan bidaiatu eta hitzaldi jendetsuak ematen, beraren izena duen ekuazio bikainaren jatorria mintzagai. Hamaika bider ohartarazi zuenez, edertasuna bilatzea izan zuen beti iparrizar eta inspirazio. 1955ean, Moskuko Unibertsitateko seminario batean, fisikari buruzko bere filosofia *hitz gutxitan* adierazteko eskatu ziotelarik, hara zer idatzi zuen arbelean, letra larriz: "Matematikoki ederrak izan behar dute fisikaren legeek».[ZIO, Eder behar du, Graham Farmelo / Fernando Morillo (EHU, 2009); Orr.: 15].

Bestalde, (5) adibideko *laburbilduz* ez da diskurtso-markatzailea*:*

(5) Matematika ez da gai kontenplatiboa, sortzailea baizik; inork ezin du handik kontsolabide handirik atera sortzeko ahala edo gogoa galdu dituenean; hori laster samar etorriko zaio matematikariari. Tamala da, baina, kasu horretan, gizon horrek ez du nolanahi ere axola handirik, eta tentelkeria litzateke hartaz kezkatzea. Atera ditudan ondorioak *laburbilduz* amaituko dut, baina ikuspegi pertsonalago batera ekarriz. [Matematikari baten apologia, G. H. Hardy / Iñaki Iñurrieta (EHU, 2010); Orr.: 148].

Labur esanda formak adberbio-lokuzio modura jokatzen du (6) adibidean, egiturari moduzko balioa erantsiz:

(6) Giza gorputzaren barrualdea ikustea laguntza handia da medikuarentzat. Ahal dela gaixoaren gorputza ireki gabe egitea izango litzateke onena, gainera. Horregatik oso garrantzitsuak izan dira gorputz barruko irudiak lortzeko garatu diren teknikak. Horietako bat, ordenagailu bidezko tomografia axiala deitzen da, OTA *labur esanda*, edo eskanerra, gehienetan esaten den moduan. Hogeita hamar urte bete barik dituen teknika honen oinarrian Matematika dago. [ZTC, Matematika medikuaren laguntzaile, Duoandikoetxea Zuazo, Xabier Elhuyar Fundazioa, 2000 (aldizkari artikulua)].

Esan bezala, adibide horiek erakusten digute corpuseko agerpen guztiak ezin direla hartu diskurtso-markatzailetzat. Hala ere, zenbait laburbiltzaileren agerpenak banan-banan aztertu ondoren ikusi dugu gehienetan diskurtso-markatzaile direla. Azterketa zehatz horiek mila agerpenetik beherakoekin egin ditugu.

Horretaz gain, aipatu beharra dago aztertu ditugun laburbiltzaile horien aldaera hauek aurki ditugula corpus horretan:

- *azken baten*: *azken batean* birformulatzailearen aldaera da.

(7) Inor ez dago garapenaren aurka, baina neurgailua noren eskuetan dagoen ikusi behar; herritarren parte-hartzea zenbat eta zabalagoa izan, ziur erabakia egokiagoa izango dela Lezamaren etorkizunerako. *Azken baten*, herria herritarrok egiten dugu, eta herritarron esku izan beharko luke zein motatako Lezama eraiki nahi dugun erabakitzea. Txoko honetatik dei egiten diet udalkideoi: garbi jokatu eta bermatu herritarron erabakitzeko eskubidea. Lezamarrok badugu zeresanik gure herriaren etorkizunaz. [Lexikoaren Behatokia Corpusa].

Baten mendebaldeko aldaera da. Euskaltzaindiak mendebaldean duen hedadura kontuan harturik, mugagabean, *batean* zabalagoaren ondoan *baten* ere ontzat ematen du. Azterketarako oinarritu garen corpusean ez dugu forma hori aurkitu. Hori dela eta, Lexikoaren Behatokiaren Corpusa[4] baliatu dugu. Corpus horretan ere, ez da maiz agertzen.

- *azken batez*: *azken batean* birformulatzailearen aldaera bat da.

(8) Gaur egun aditu guztiak bat datoz puntu batean: arazoari aurre egingo bazaio, arriskuan dagoen eskualdeko populazioaren partehartzea ezinbestekoa da. Orain dela gutxi arte, ohizko laborantzak eta larratzeak lehor-lurretan eragin kaltegarria zutela uste izan da. Hala ere, azterketek frogatu dutenez, iharduera tradizionalak uste baino egokiagoak dira eta lehenik bertako populazioa bereganatzera eta planaren gestioa eta ardura haien esku uztera bideratzen ari dira ahaleginak. Arlo honetan egindako hainbat ekimen arrakastatsu gertatu dira. *Azken batez*, arazoa ekonomikoa da. 1992an Rio de Janeiron eginiko Lurrari buruzko gailurrean arazoari heltzea erabiki zen, baina ez dirudi munduko estatu aberatsek azkar mugitzeko asmoa dutenik. [ZTC, Basamortutzea: arazo larri isil hori, Mujika Etxeberria, Alfontso Elhuyar Fundazioa, 1994 (aldizkari artikulua)].

[4] [http://lexikoarenbehatokia.euskaltzaindia.net/cgi-bin/kontsulta.py].

Birformulatzaile horren erabilerari dagokionez, batez ere Zientzia eta Teknologia eta Pentsamenduen Klasikoak corpusetan aurkitu dugu.

- *hitz batez*: *hitz batean* laburbiltzailearen aldaera bat da.

(9) «Komunikazioan heztea» irakasgaiaren helburua ez da kazetariak sortzea, baizik eta, gaztetxoenek masa-hedabideen bitartez jasotzen duten mezuaren jabetze selektiboa ahalbidetzea. Horrek esan nahi du egunero jasotzen dituzten ehunka informazio eta estimulu analizatzeko, laburtzeko, eta hierarkizatzeko gai izatea, era horretan hedabideen aurrean duten autonomia kritikoa garatuz. *Hitz batez*, pertsona mediatikoki alfabetatuak sortzea. Gauden egoeran horrek esan nahi du globalizazioaz, informazioaren saturazioaz, desinformazioaz, irakasleriaren prestakuntzaz, teknologiaz, demokraziaz eta dibertsitateaz hitz egitea, besteak beste. Gai delikatuegiak, akaso? Subjektu aktibo berria sortzeko bidean eskolak duen zeregina funtsezkoa da, baina, badirudi gure irakaskuntza sistemak ez duela konturatu nahi: gehiago kezkatzen du eskolak ordenagailu berriez hornitzeak, tramankulu horiek kritikoki nola erabili behar diren bultzatzea baino. [EPD lib., Ikus gaitzazuen, Txema Ramirez de la Piscina (Alberdania, 2004) Or.: 124].

Birformulatzaile horren erabilera Pentsamenduen Klasikoak eta Ereduzko Prosa corpuseko liburuetan nagusitzen da.

- *Labur esateko*: *labur esanda* laburbiltzailearen aldaera da.

(10) Horrela bere kanporatzeetako edozeinetan nahimenari komeni zaiona, bere helburua betetzen duena, hori pentsatzen da on adigaiaren bidez, gainerakoan oso desberdinak izan daitezkeelarik ere. Horregatik esaten dugu: jateko ona, bide ona, eguraldi ona, arma onak, augurio ona eta abar, *labur esateko*, on deitzen diogu nahi dugun bezalakoa den guztiari; horregatik batarentzat ona izan daiteke, beste batentzat zeharo horren kontrakoa dena. [PKC, Mundua nahimen eta errepresentazio gisa, Arthur Schopenhauer / Xabier Mendiguren Bereziartu (1999) Or.: 422].

Aldaera horren erabilera Pentsamenduen Klasikoak corpusean egin da gehienbat.

1.2. Oinarri teorikoak

Euskal lanetan dugun hutsunea kontuan izanik, laburbiltzaileen esparru teorikoa zehazte aldera, gaztelaniazko lanetan oinarritu gara. Oro har, autore gehienak bat datoz laburbiltzaileen zeregin nagusia laburbiltzea dela diotenean. Horrela, ikuspegi lexikografikotik Sanmartínek (2010: 3) hainbat hiztegitan laburbiltzaile batzuk (*en conclusión*, *en suma*, *en resumen*, *en síntesis*, *en una palabra*, *en dos palabras*, *en pocas palabras*) aztertu ondoren, laburbiltze zeregin hori nagusitzen dela aipatzen du:

> En todas las partículas se constata un significado constante de «resumen o repetición en términos más breves», esto es, se reconoce en todos los diccionarios que las partículas analizadas poseen un valor que los analistas del discurso denominan reformulador recapitulativo, y por este motivo, el reenvío más habitual y la definición sinonímica más empleada es la de «en resumen».

Floresek (2003: 200) gaineratzen du argumentazioa noranzko berean edo kontrakoan izan daitekeela: «Algunas veces dicho miembro tendrá la misma orientación argumentativa: *en suma, en conclusión, en resumen, en síntesis*;

otras, tendrá orientación opuesta: *en resumidas cuentas, en definitiva, a fin de cuentas, en fin, total, vamos, al fin y al cabo, después de todo*».

Fernándezek (2013) orientazioa oinarri hartuta, birformulatzaile 'recapitulativo'ak lantzen ditu. Diskurtso-markatzaile horiek aurkako orientazioa azaltzen dutela, baina diskurtso-markatzaile batzuekin baino ez dela gertatzen hori dio. Ildo beretik, Vázquezek (1995: 368) oro har, birformulazio laburbiltzaile gisa ulertzen dugun horretan bi balio leudekeela adierazten du:

> a) Recapitulación condensadora (objetiva): se vuelve sobre la primera formulación de un enunciado (se entiende que éste puede ser de distinta extensión, capítulo, párrafo, etc.) con el fin de extraer lo esencial. En este primer tipo no se cuestiona la primera formulación en lo que respecta al contenido, sino que se limita a presentar una expresión más condensada.
>
> b) Recapitulación valorativa o evaluativa (subjetiva): se vuelve sobre el enunciado previo pero, además de la intención de abreviar, puede estar presente la de completar o clarificar lo dicho anteriormente. Hace referencia a un punto de vista no expresado en el contexto inmediato.

Hala ere, Vázquez-ek (*Ibid.,* p. 366) gaztelaniako zenbait birformulatzaile laburbiltzaile aztertzerakoan ohartzen gaitu ezin ditugula elementu horien balio guztiak zehaztu, batetik, aztertzen dugun corpusa mugatua delako eta, bestetik, izaera multifuntzionala dutelako. Izan ere, markatzaile batzuek duten izaera multifuntzional horrek zaildu egiten du markatzailearen berezko propietate semantikoak testuinguruan hartzen dituenetatik bereiztea.

Arlo lexikografikoan eta diskurtsoaren azterketan azalduriko oinarri teoriko horiek kontuan izanik, corpusaren azterketan murgilduko gara.

2. BIRFORMULATZAILE LABURBILTZAILEEN ERABILERA DISKURTSOAN

Hasieran esan bezala, gure azterketak alde teorikoan jaso duguna ea corpuseko datuetan betetzen den erakutsi nahi du. Horrela, bada, gaztelaniako lan horietan egin diren sailkapenak kontuan hartuta, euskarazko laburbiltzaileak ere bitan banatzen dira: laburbiltzaileak (*recapitulativos*) eta berraztertzaileak (*de reconsideración*). Halaber, sailkapen horietan, laburbiltzaileak ez-parafrastikotzat hartzen dira. Jarraian, EUDIMA corpusean maiztasun handienarekin agertutako laburbiltzaileak (3. taula) aztertuko ditugu:

3. taula.
Birformultatzaile laburbiltzaileak

Laburbiltzaileak	
Laburbiltzaileak	**Berraztertzaileak**
laburbilduz	azken batean
labur esanda	azken buruan
hitz batean	azken finean
hitz bitan esateko	
hitz gutxitan	

Birformulatzaile laburbiltzaileen agerpena, berriz, honela (3. irudia) banaturik agertzen da corpusa osatzen duten testuetan:

3. irudia.
Birformulatzaile laburbiltzaileak EUDIMA corpuseko testuetan



Birformulatzaile berraztertzaileen maiztasuna nola banaturik agertzen den EUDIMA corpusean erakusten du 4. irudiak:

4. irudia.
Birformulatzaile berraztertzaileak EUDIMA corpuseko testuetan



Bi taldeetako laburbiltzaile horien balio nagusia laburpena edo sintesia egitea da eta laburbildu nahi den horri (testu oso bati, testu zati bati, paragrafo bati, esaldi bati edota egitura laburrago bati; agerikoa edo inplizitua izan daitekeenari) ematen diote bidea.

Balio nagusi horretaz gain, birformulatzaile laburbiltzaile bakoitzak duen balioa eta ñabardurak azalduko ditugu jarraian; adibideen azterketatik

eratortzen diren balioak adierazteko, aurretik beste hizkuntza batzuetan egin diren azterketak kontuan hartu baditugu ere, gure interpretazioen mende izango gara.

2.1. Birformulatzaile laburbiltzaileak

Birformulatzaile laburbiltzaileen multzoa honako markatzaile hauek osatzen dute: *laburbilduz*, *labur esanda*, *hitz batean*, *hitz bitan esateko* eta *hitz gutxitan*.

Sarreran adierazi bezala, diskurtso-markatzaile horien oinarrizko balioa laburbiltzea da, alegia, adierazkizuna hitz gutxitan ematea. Adierazkizun labur horretara iristeko, laburbiltzaile horiek bideratze-lana egingo dute; izan ere, ageriko markatzaile diren neurrian, aurretik esandakoaren ildoa jarraitzen laguntzen diote hartzaileari. Esandako hori agerikoa izan daiteke edota inplizitua, baina markatzaileek agertzen diren diskurtso atala (atal birformulatzailea)[5] diskurtsoaren laburpen edo sintesi modura aurkezten dute aurreko atalean (birformulakizunean)[6] esandakoa. Beste era batera esanda, laburbiltzaileek adierazten dute atal birformulatzailean datorrena hiztunak transmititu nahi dituen ideien laburpena dela. Oro har, esan daiteke aurretik esandakotik funtsezkoa jaso nahi dela.

(11) *Andregaiaren ama aldetiko osabak eginkizun hauek ditu: hark organizatzen du eta burutzen du andregaiaren abdukzioa ezkontzaren aurretiko gisa; hark berreskuratzen du iloba dibortzio kasuan, eta senarraren kontra babesten du; hark behartzen du koinatua harekin ezkontzera senarraren heriotza kasuan; senarrarekin solidarioki, hark mendekatzen du iloba bortxatua, e.a.* **Hitz bitan esateko, hura da, senarrarekin eta bere ilobarekin batera, eta beharrean senarraren kontra, bere ilobaren babeslea.** [PKC; Antropologia estrukturala, Claude Lévi-Strauss / Patxi Apalategi (1996) Or.: 151].

Birformulakizuna	Ezaugarri nagusien artean, honako hau nabarmendu daiteke: nukleozalearen izaerarekiko, substratuaren egiturarekiko, talde aterakorrarekiko eta disolbatzailearekiko sentikortasuna. Xehetasun horiek sakonean aztertzeak laguntzen digu erreakzioa zergatik gertatzen den eta zerk errazten edo zailtzen duen ulertzen.
Azalpena: atal birformulatzailea	-labur esanda, egitura-aldaketek funtzioan nola eragiten duten ulertzen-.

Beste honako adibide hauetan ere ikus daiteke bigarren zatian edo atal birformulatzailean laburpen gisa aurkezten dela informazioa:

(12) *Hendaiako eguneroko bisitaria AHTren bigarren belaunaldiko eredua da, atlantikoa abizenekoa, Lyonera doan lehen belaunaldikotik desberdintzeko. Desberdintasuna ez dagokio karrozeriaren koloreari bakarrik (hemengoa urdina*

[5] Adibideetan atal hau letra lodiagoz nabarmenduta ageri da eta diskurtso-markatzailea bera letra lodiagoz eta azpimarratuta.

[6] Adibideetan atal hau letra etzanez nabarmenduta ageri da. Bide batez, irakurlea ohartarazi nahi dugu esanez zaila dela zehaztea askotan birformulakizuna non hasten den eta non bukatzen den; izan ere, zenbaitetan corpusaren arakatzaileak eskaintzen digun testuaren luzera ez da behar bezainbestekoa eta beste zenbaitetan, berriz, ez da aurreko testua bera birformulakizuna, baizik eta testu horretatik inferitzen dena, ez da esplizitua, alegia.

eta hangoa laranja), AHTren funtsezko ezaugarriari baizik, abiadurari, alegia. Zaharrak 270 km/h-koa du bere ohizko abiadura eta AHT atlantikoak 300 km/h-koa. Jakina, 30 km/h-ko abiadura-aldea lortzeko soinekoaren itxura baino zertxobait gehiago aldatu behar zaio. **Laburbilduz, hauek dira egin diren hobekuntzak: motoreak berriak dira (arinagoak eta bi aldiz potenteagoak), balazten ahalmena % 70 handiagoa da (blokeoaren kontrako mekanismoa dute gainera), esekidura pneumatikoa da, bagoiak arinagoak dira, eta abar.** [ZTC Corpusa, Lur gainean hegan, Irazabalbeitia Fernandez, Inaki / Kaltzada Gonzalez (Pili Elhuyar Fundazioa, 1997) (aldizkari artikulua)].

(13) *Landa aldean, bistan da, baserri bakoitza saiatzen zen bere aleak, bere esnea, bere txerria, bere ardoa, bere egurra, gurina, gazta, kontserbak, bere olioa presatu, bere taloak erre, bere lihoa, bere kalamua eta bere artilea irun eta ehuntzen...* **Hitz batean, hor-nonbait autosufizienteak ziren baserri-etxeak.** 18. mende amaiera arte, inon ere munduan, elikagaien %99 kontsumitzaileak bere kanpandorretik edo bere minaretetik ikusi zezakeen eskualdean produzitzen zen... 19.ean, geroz eta familia gehiagok eskas zuten beren lurretan aldatzen zutenarekin bizitzea. Belaunaldi gutxi batzuk aski izan ziren, «nork berea» produzitzetik, jendeak oro (ia oro, nekazariak barne) industriak produzitutakoa, eta ia esklusiboki industriak produzitutakoa kontsumitzera, igaro zitezen. [EPD lib., Gauzen presentzia, Pablo Sastre (Elkar, 2007) Or.: 115].

(14) *Ezaugarri nagusien artean, honako hau nabarmendu daiteke: nukleozalearen izaerarekiko, substratuaren egiturarekiko, talde aterakorrarekiko eta disolbatzailearekiko sentikortasuna. Xehetasun horiek sakonean aztertzeak laguntzen digu erreakzioa zergatik gertatzen den eta zerk errazten edo zailtzen duen ulertzen* **-labur esanda, egitura-aldaketek funtzioan nola eragiten duten ulertzen-**. [EHU, Kimika organikoa, Volhardt, K. Peter C. *et al.* (EHU, 2008) 6. kapitulua].

(15) *Emakumeen gerri-aldaka ratioa (GAR), hau da, gerriaren diametroaren eta aldakaren diametroaren arteko zatidura, gorputz-gantzaren kokapenaren adierazlea da, eta ezaguna da ratio horren balio baxuak dituzten emakumeak direla gizonak gehien erakartzen dituztenak.* **Hitz gutxitan esanda, gerri estu eta aldaka zabaleko emakumeak gustatzen zaizkie gizonezkoei.** [ZIO, Animalien aferak, J. I. Pérez Iglesias / M. B. Urrutia (EHU, 2011); Or.: 319].

Dena dela, corpusaren gainean adibideak aztertu ahala konturatu gara, balio diskurtsibo nagusi horietan badirela aztertu beharreko ñabardurak eta, horrez gain, zenbait kasutan balio horien arteko mugak ere ez direla erabat garbiak. Jarraian azalduko ditugu beste balio horiek.

2.1.1. Birlormulatzaile laburbiltzaileen beste balioak eta erabilerak

Laburbiltzaileen atalean aurkitu ditugun beste balioak hauek dira: a) ondorioa bideratzea; b) informazioa argitzea; c) informazioa indartzea; d) informazioa gehitzea eta e) sail edo segida baten amaiera.

a) **Ondorioa bideratzea:** diskurtsoaren aurreko atalean –birformulakizunean– adierazitakoa oinarri harturik, atal birformulatzailea aurreko atal horren ondorio gisa aurkezten dute.

(16) *Arestian esan bezala, ibaiak eta ibarrak ezagutzea eta ezagutzera ematea da programaren helburu nagusia. Asmo horretara biltzen den edonori zuzenduta dago beraz, ibaialde egitasmoa. Halaber, hezkuntza-arloko iharduera gisa*

ere ulert daiteke eta horrek jakina, gehiago zabaltzen du oraindik egitasmoaren eremua. **Labur esanda, ikastetxeetarako ezin egokiagoa da ibaialde programa, lehen eta bigarren hezkuntzakoentzat eta baita batxilergomailan ari direnentzat ere; horiez gain, kirol elkarteak edota kultur taldeentzat ere biziki interesgarria izan daiteke. Eta talde ekologistak?** [ZTC, Gure ibaiak ezagutuz, ibaialde, Kaltzada Gonzalez, Pili Elhuyar Fundazioa, 1996 (aldizkari artikulua)].

b) **Informazioa argitzea:** aurreko enuntziatu batean esandakoari informazio argigarria era laburrean gehitzen diote:

(17) *Ernst Haeckel, zoologo alemaniar handiak, biologia kreazionistaren teoria zahar bat berrezarri zuen, eta iradoki zuen biziaren zuhaitza zuzenean irakur zitekeela goi-mailako formen enbrioi-garapenean. Aldarrikatu zuen "ontogeniak filogenia laburbiltzen duela", edo, aho-korapilo gozo hori azaltzearren, banako batek hazi ahala iragaten dituen faseetan, bere arbasoen forma helduak adierazten dituela ordena egokian*; alegia, **labur esanda**, **banako bakoitzak dagokion zuhaitz genealogikoan gora egiten duela.** [PKC, Gizonaren neurketa okerra, Stephen Jay Gould / Oihane Lakar (2008) Orr.: 152].

c) **Informazioa indartzea:** diskurtsoan aurretik esandakoa eta inplizitu dena birformulatzen dute atal birformulatzailean txertatzen dutena indartuz.

(18) *Berak dioenez, «behar den bezala iritzi bide zioten hizkuntzaren helburuari, eta eskuratu nahi zuten ondasun horren ideia aski indartsu eta bizia izan bide zuten pizgarri, lan astun hori beren gain hartzeko orduan».* **Laburbilduz**, **gure garaiko filosofoa ez da ausartzen pauso bakar bat ere ematen, ezta kasualitate guztietatik harago ere, eta ikuspuntu horretatik, nola idatz dezake hizkuntzaren sorreraz?** [PKC, Hizkuntzaren jatorriari buruzko tratatua, J. G. Herder / Antton Garikano (1995); **Orr.: 120**].

d) **Informazioa gehitzea:** aurreko atalari buruzko informazioa gehitzen dute modu sintetikoan, atal birformulatzailean.

(19) *Baina, zer gertatu zen?* **Labur esanda**, **zentraleko erreaktore batean hozketa-sistemaren hutsegite konplexu baten ondorioz, erreakzioa kontroletik kanpo geratu zen;** horren ondorioz, itxuragabeko beroketa sortu zen eta horrek erreaktorearen azpialdea urtzen hastea ekarri zuen. Fisio-erreakzioa baretzeko erabiltzen diren grafitozko hagek su hartu eta eztanda kimikoa gertatu zen. [ZTC, Txernobilgo gaurik luzeena, Kaltzada Gonzalez, Pili Elhuyar Fundazioa, 1996 (aldizkari artikulua)].

e) **Sail edo segida baten amaiera:** aurrekoa atalean zerrendatu diren elementuen ezaugarri komuna aurkezten dute atal birformulatzailean.

(20) *Pertsona gazteak azaltzen ziren, zure lagunak, estudiante zarpailtsuak, haiekin barre egin eta ondo pasatzen zenuen; eta gero ere damak etortzen ziren, autoz; behin Opera zuzendaria, buruzagi handia, urrundik oholtza gainean ikustean errespetua ematen zuena; gero ere neska gazteak, merkataritza eskolako ikasleak, atetik ezarian irristatzen zirenak*, **labur esanda**, **emakume asko eta asko.** [EPD lib., Emakume ezezagun baten gutuna, Stefan Zweig / Eduardo Matauko (Igela, 2005) Orr.: 16].

Balioak zehazterakoan zailtasun batekin egin dugu topo: balioen arteko muga lausoak; beste modu batera esanda, laburbiltzaileek bideratzen duten diskurtsoa alde pragmatiko-semantikotik aztertzen dugunez gero, irakurketa

bat baino gehiago izan ditzake adibide berak. Hori dela eta, oinarrizko balio horretan egin daitezkeen ñabardurak erabat irekita uzten ditugu. Ildo horretatik bat egiten dugu, Portolés-Lázaroren (2001: 48-49) diskurtso-markatzaileen definizioan aipatzen den irizpide pragmatikoarekin: «El criterio fundamental de esta definición no se enclava en la gramática, sino en la pragmática: los marcadores guían el procesamiento inferencial».

Esate baterako, *laburbilduz* diskurtso-markatzaileari dagokionez, ondorioa bideratzen edota informazioa gehitzen edo indartzen duen bereizterakoan, zailtasunak izan ditugu adibide bakoitza sailkapeneko atal bakar batean sartzeko. Interpretazio pragmatikoa izanik sakonena, iruditu zaigu adibide berak atal batean zein bestean ager zitezkeela. Inferentziak bideratzen ditu, baina diskurtsotik hartzaile bakoitzak zer inferituko duen ez da erraza zehazten. Egia da, adibideak aztertzerakoan, gehienetan hurbileko testuingurua aztertu dugula eta, segur aski, diskurtso osoa aztertu beharko genuke zehaztapenak egiterakoan ahalik eta finen jokatzeko. Izan ere, bai aurretik dugun diskurtso esplizitu guztia edota inplizitu egon daitekeena ez ditugu erabat kontuan izan. Halaber, diskurtso bakoitzean zer gai jorratzen den ere, kontuan hartzekoa litzateke. Esate baterako, azter dezagun (21) adibidea:

(21) *Pisutasun bikoitza azpimarratzen du, arrazoimenarena eta Kristoren eta Elizaren autoritatearena, konbertsioaz gero honen mende jarri baitzen Egiaren ikasbidean. Berarentzat zama jasangaitza izandako zalantza eta egoera larri horretatik irteten biziki saiatu zen beti Agustin.* **Laburbilduz, esan dezakegu filosofoak Egiaren bila diharduela eta jakintsuak hura eskuratu duela**. [PKC, Hainbat idazlan, San Agustin / Imanol Unzurrunzaga (2003)].

Diskurtsoan aurretik –birformulakizunean– esandakoaren edo esandakoen ondotik adierazitakoa laburbiltzeaz gain, ondorio gisa aurkeztera dator atal birformulatzailea. Ondorio bat inferitzeko bide ematen duela esaten dugu, baina beharbada filosofiako gai batez ari direla kontuan izanik, ez baldin bagara filosofiako korronte horretan aditu, ez dugu behar adina informazio, bideratzen den informazio laburbildua ondorio bat dela esateko.

Bestalde, ondorioa bideratzeko multzo horretan aztergai dugun corpusean, aipagarria iruditzen zaigu, *laburbilduz*ek diskurtso-bideratze lanak egiteaz gain, diskurtsoaren progresio tematikoan ere laguntzen duela honako adibide honetan:

(22) *Kostuak murrizteko neurriak proposatu, beren moduluetako materialak kudeatu, produktuaren kalitatea zaindu eta diseinu- eta garapen-ahalmena izango duten hornitzaileak arrakastatsu suertatuko dira. Hornitzaile nagusi hauek automobil fabrikatzailearen bazkide bihurtuko dira eta hauekin negoziatuko dituzte produktuaren lehiakortasunarekin lotuta dauden puntu guztiak, preziotik osagaien diseinuraino. Horrelako neurriak hartuz, General Motors eta Wolkswagen-ek bilioi erdi pezeta baino gehiago aurreztea lortu dute eta noski, horrek, enpresa handien interesa ziurtatzen du.* **Laburbilduz**, **Moduluka Egindako Automobila planteamenduak fabrikatzailearen eta hornitzailearen arteko harreman-esparru berri bat definitzen du.** Harreman-esparru berri honek, aldi berean kontenplatu behar diren aparteko lau arlo biltzen ditu bere baitan; ondokoak

dira: [ZTC, Automobilgintzako osagai-hornitzaileen etorkizuna: Moduluka Egindako Automobila, Aranburu, Iñaki Elhuyar Fundazioa, 1997 (aldizkari artikulua)].

2.2. Birformulatzaile berraztertzaileak

Birformulatzaile berraztertzaileen multzoa honako markatzaile hauek osatzen dute: *azken batean, azken buruan* eta *azken finean.*

Birformulatzaile berraztertzaileen oinarrizko balioa ere laburbiltzea da, baina laburbiltzaileetan ez bezala, berrazterketa edo berrausnarketa adierazten duten birformulatzaile hauek birformulakizunean emandako azalpena beste ikuspuntu batetik aurkezten dute, modu partzial edo osoan, aurrean esandakoa baieztatuz, sendotuz edota aurrean esandakoari kontra jarriz. Alegia, formulazio berrira pasatu aurretik, aurreko formulazioko elementu guztiak (inplizituak edo esplizituak) aztertu edota ebaluatu egin direla esan daiteke. Hala ere, kasu honetan ere ez legoke urruntze handirik bi formulazioen artean.

(23) *Idazlea ez da gozogile bat, ez lurringile bat, ez juglare bat; pertsona konprometitua da, beharraren eta bere kontzientziaren sentimenduari lotuta dagoena; behin hasita, bukaerara heldu behar du, eta nahiz eta nazka eman, bere atsekabea gainditu eta bere irudimena bizitzaren lokatzetan zikindu behar du...* **Azken finean, kronista soila bezalakoa da**. (A. Txekhov, via Jon Benito, berria) (ez dakit noizkoa: zabarkeria, Mikel, zabarkeria, idazkari jauna...) Albainketa 3. (Abarrategi) Hari-lits hau, firu albiñu hau, Amaia: ez dakit zer egin beronekin ere. [EPD; Terra Sigillata, Joxe Austin Arrieta (Txalaparta, 2008) Or.: 357].

Birformulakizuna	Idazlea ez da gozogile bat, ez lurringile bat, ez juglare bat; pertsona konprometitua da, beharraren eta bere kontzientziaren sentimenduari lotuta dagoena; behin hasita, bukaerara heldu behar du, eta nahiz eta nazka eman, bere atsekabea gainditu eta bere irudimena bizitzaren lokatzetan zikindu behar du...
Azalpena: atal birformulatzailea	Azken finean, kronista soila bezalakoa da.

Honako adibide hauetan (24 eta 25) ere, ikus daiteke bigarren zatian edo atal birformulatzailean laburpen gisa aurkezten den informazioa nabarmentzen dela:

(24) *Halaber, zure lantokian ere zenbait aldaketa gertatu dira, nahitaezko aldaketak, susma ditzakezun arrazoien karietara. Robertek ez du ezer erantsi. Bere egoeraren jabe da guztiz, eta bat dator zuzentzaileekin, berak ere helburu hori baitu, normaltasunera lehenbailehen itzultzea, bere etxera, bere ametsetara, bere lanpostura*; **azken buruan**, **egunerokotasunera**. Normaltasuna, hori da Robertek gogoko duen egoera. Hara itzuli nahi du. Jakin badaki egunerokotasuna gertakari haietaz geroztik desberdina izango dela hasiera batean behintzat, emazterik gabekoa, besteak beste. [EPD lib., Istripuak, Agustin Arrieta Urtizberea (Alberdania, 2008) Or.: 28].

(25) *Argiago mintzatu zen Le verbe basque en tableaux liburuan: Adibideak literaturako giputzetik hartuko ditut gehienetan, hura delako ezagunena, mintzatuena, landuena, eta baita aberats eta erregularrenetakoa ere, eta hura delako*, **azken batean**, **euskararen benetako ordezkaria**, gutxi gorabehera toscaniarra eta gaztelania italieran eta espainieran diren neurri berean. [EPD lib., Euskara batua, Koldo Zuazo (Elkar, 2005) Or.: 65].

2.2.1. Birlormulatzaile berraztertzaileen beste balioak eta erabilerak

Hona hemen berraztertzaileek birformulazio-prozesuetan betetzen dituzten beste funtzio nagusiak:

a) **Ondorioa bideratzea:** lehen formulazioaren ondorioa bideratzen du modu sintetikoan, berrazterketa edo berrausnarketa egin ondoren.

(26) *Bizkaiko euskaran idatzi zuen Añibarrok ere, baina ez bere sorterrikoan, hura baino zabalagoan baizik, nolabaiteko bizkaitar batuan, ahalik eta bizkaitar gehienek ulertzeko modukoan. Mogelek ez zuen sekula bere jokabidea argiro azaldu, baina baliteke ingurukoen haserrea sortzeko beldurrez isildu izana.* Baliteke, **azken batean**, **Mogelek hizkera mota bi nahikotzat jo izana. Bata, Euskal Herri osorakoa eta gai jasoetarakoa eta, bestea, bere inguruko eta lagunarteko esparruetarakoa.** Beterriko hizkerak betetzen zuen lehen eginkizuna eta, berari zegokionez, Markinakoak bigarrena. Bizkai aldeko apaiz jendeak, ostera, ez zuen euskara batuaren kezkarik, eta bizkaitar batua zuen helmuga. [EPD lib., Euskara batua, Koldo Zuazo (Elkar, 2005) Or.: 58].

b) **Informazioa argitzea:** aurreko enuntziatu batean esandakoari informazio argigarria era laburrean gehitzen dio:

(27) *Horren ondorioz sortu ziren janari-soberakinak eta (eskualde batzuetan) soberakin horiek garraiatzeko animalietan oinarrituriko baliabideak aldez aurreko baldintza izan ziren gizarte finkatu, politikoki zentralizatu, sozialki geruzatu, ekonomikoki konplexu eta teknologia aldetik berritzaileak garatzeko. Horregatik, etxeko landare eta animaliak irispidean izateak esplikatzen du*, **azken finean**, **inperioak, alfabetatzea eta altzairuzko armak zergatik garatu ziren lehenago Eurasian eta geroago, edo batere ez, beste kontinenteetan**. [Su-armak, germenak eta altzairua, Jared Diamond / Andoni Sagarna (2009) Or.: 97].

c) **Esplikatiboa:** aurreko enuntziatuan esandakoa azaltzen du modu laburrean.

(28) *Beste era batera esanda, oso goiz erdaldundu zen Nafarroako alderdi zabala, ekonomian aberatsena eta aurreratuena zena. Eremu erdaldun horretakoak ziren Nafarroako agintariak -atzerritik etorritakoak ere bai sarritan- eta, gainera, latinera ohituta egonda, samurragoa zen latinetik hizkuntza erromantzeetarako jauzia, latinetik euskararakoa baino.* **Azken batean**, **latinaren dialektoak ziren haiek, eta latinaren aldean zeharo desberdina euskara.** Hori dela eta, XII-XIII. mendeetan latina baztertu zenean, nafar erromantzea lehenengo, eta gaztelania gero izan ziren haren ordezkoak. Oso kontuan eduki behar da, bestalde, Santiagoko bidea indartu nahi izan zela XI. mendearen bigarren erdian, eta erbesteko hainbat lagun ekarri zen azpiegitura sendotzera: okzitaniarrak eta frankoak, batez ere. [EPD lib., Euskara batua, Koldo Zuazo (Elkar, 2005) Or.: 26].

3. ONDORIOAK

Lan honetan zortzi birformulatzaile laburbiltzaileren deskribapena egin dugu. Birformulatzaile horiek birformulakizunean esandakoa laburbilduta azaltzen dute atal birformulatzailean. Laburbiltze hori hainbat ikuspuntutatik egin daiteke eta horrek bi motatako laburbiltzaileak bereizteko aukera eman digu: laburbiltzaileak eta berraztertzaileak. Lehenek birformulakizunean adierazitakoaren ikuspuntuari eusten diote, eta bigarrenek aldaketak sartzeko aukera ematen dute eta bide batez ikuspuntu berria. Biek ala biek birformulakizunean esandakoa mantentzen dute eta aldatzen dena da nola planteatzen den formulazio berria eta aurrean adierazitakoaren ikuspuntua.

Birformulatzaile horien balio oinarrizkoa azaltzeaz gain, izan ditzaketen beste balioak ere zehaztu ditugu, etorkizunean azterketa sakonago bati esker osatuko dena. Alabaina, balioen zehaztapenari heldu aurretik, oinarri metodologikoak aipatu ditugu: horretarako berariaz prestaturiko corpusa eta arakatzailea eta, horrez gain, laburbiltzaileei buruzko bibliografia.

Edozein modutan, lan honek oinarrizko balio diskurtsiboak zehaztea izan du helburu, eta proposaturiko balioak beste corpus zabalago batzuetan beharko lirateke aztertu, erabileretan eta balioetan sakondu ahal izateko. Azken eginkizun hau etorkizunerako lanen artean sartuko litzateke.

BIBLIOGRAFIA

AGIRRE, J. M., 1991, *Euskal Gramatika Deskriptiboa*, Bilbao, Labayru Ikastegia.

ALBERDI, X., 2011, «Diskurtso-markatzaile berri bat: hurrenez hurren birformulatzailea», *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo (ASJU)*, XLV-1, 301-325.

ALBERDI, X.; EZEIZA, J., 2012, «Birformulazioa eta birformulatzaile esplikatiboak hizkera juridikoan», *Euskera,* 57, 3, 607-657.

ASCHENBERG, H.; LOUREDA, O., 2011, «Introducción. Marcadores del discurso: descripción, definición, contraste», en H. Aschenberg; O. Loureda Lamas (eds.), *Marcadores del discurso: de la descripción a la definición*, Frankfurt am Main: Iberoamericana-Vervuert, 9-31.

BLAKEMORE, D., 1993, «The Relevance of Reformulations», *Language and Literature*, 2, 2, 101–20.

CUENCA, M. J.; BACH, C., 2007, «Contrasting the form and use of reformulation markers», *Discourse Studies*, 9, 2, 149-175.

DÍAZ, L., 2009, «Marcadores aditivos en la oralidad: sus posibilidades de conmutación», *Sapiens,* Revista Universitaria de Investigación, Año 10, n.º 2.

EUSKALTZAINDIA, 2008, *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*, Bilbo, Euskaltzaindia, Jagon bilduma.

FERNÁNDEZ DEL VISO, M., 2013, «El concepto de "orientación argumentativa" en el estudio de los marcadores del discurso», *Estudios de Lingüística*, 27, 55-64.

FLORES, E., 2003, *Los marcadores de reformulación: análisis, aplicado a la traducción español/italiano, de en fin y de hecho*, Málaga, Servicio de Publicaciones de la Universidad de Málaga.

GARCIA-AZKOAGA, I., 2013, «Birformulatzaile urruntzaileak: euskarazko diskurtso-markatzaileen hiztegia osatzeko atariko azterketa», *Fontes Linguae Vasconum (FLV)*, 116, 191-208.

GÜLICH, E.; KOTSCHI, T., 1983, «Les marqueurs de reformulation paraphrastique», *Cahiers de Linguistique Française*, 5, 305-351.

— 1987, «Les actes de reformulation paraphrastique dans la consultation La dame de Caluire», en *L'analyse des interactions verbales,* Berne, Peter Lang, 15-81.

— 1995, «Discours Production in Oral Communication», en *Aspects of Oral Communication*, Berlin/New York, Walter de Gruyter, 30-66.

KOTSCHI, T., 1996, «Procedimientos de producción y estructura informacional en el lenguaje hablado», en *El español hablado y la cultura oral en España e Hispanoamérica*, Frankfurt, Vervuert, 185-206.

LOUREDA, O., 2010, «Marcadores del discurso, pragmática experimental y traductología…», *Pragmalingüística*, 18, 74-107.

MARTÍ SÁNCHEZ, M., 2008, *Los marcadores en español L/E: conectores discursivos y operadores pragmáticos*, Madrid, Arco Libros.

— 2011, «Los conectores discursivos (entre los otros marcadores discursivos y los otros conectores», *Linred, Lingüística en la red,* IX, 05-11-2011, 1-37, [http://www.linred.es/numero9.html], Universidad de A Coruña.

MARTÍN-ZORRAQUINO, M. A., 1992, *Gramática del discurso. Los llamados marcadores del discurso*, Sevilla: Universidad de Zaragoza.

—; PORTOLÉS-LÁZARO, J., 1999, «Los marcadores del discurso», en I. Bosque; V. Demonte (eds.), *Gramática Descriptiva de la Lengua Española*, Madrid, Espasa Calpe, 3, 4051-4213.

MURILLO, S., 2010, «Los marcadores del discurso y su semántica», en O. Loureda Lamas; E. Acín Villa (eds.), *Los estudios sobre marcadores del discurso en español, hoy*, Madrid, Arco Libros, 241-280.

PORTOLÉS-LÁZARO, J., 2001, *Marcadores del discurso*, Barcelona, Ariel, 2.

ROSSARI, C., 1994, *Les opérations de reformulation*, Berne, Peter Lang.

ROULET, E., 1987, «Complétude et connecteurs reformulatifs», *Cahiers de Linguistique Française*, 8, 111-140.

SANMARTÍN, J., 2010, «La dificultad de definir en un diccionario de partículas», en *La lexicografía en su dimensión teórica*, Málaga, Estudio y Ensayos, 125, Servicio de Publicaciones de la Universidad de Málaga, 561-585.

VÁZQUEZ, N., 1995, «Una aproximación a algunos marcadores con función textual de "resumen", "conclusión" y "cierre"», *Estudios de Lingüística de la Universidad de Alicante*, 10, 349-390.

LABURPENA

Birformulatzaile laburbiltzaileen balio diskurtsiboen azterketa corpusean oinarrituta

Artikulu honetan gaur egungo corpusa oinarri harturik, birformulatzaile laburbiltzaileak izan ditugu aztergai. Bereziki, balio diskurtsiboak zehaztu nahi izan ditugu. Izan ere, bi balio nagusi bereizten dira literaturan, batetik, laburbiltzailea, eta, bestetik, berraztertzailea. Hala ere, gure hipotesia da balio diskurtsibo nagusi horietan badirela aztertu beharreko ñabardurak eta, horrez gain, zenbait kasutan balio horien arteko mugak ere ez direla erabat garbiak. Lan honetarako birformulatzaile hauek aztertu ditugu: *azken batean, azken buruan, azken finean, hitz batean, hitz bitan esateko, hitz gutxitan, laburbilduz, labur esanda.*

Gako hitzak: diskurtsoa; birformulatzaileak; laburbiltzaileak; corpusa.

RESUMEN

Estudio basado en corpus del valor discursivo de los reformuladores recapitulativos

En este artículo tomando como base el corpus, hemos examinado los reformuladores recapitulativos. Especialmente, hemos pretendido fijar los valores discursivos. En efecto, en la literatura se distinguen dos valores principales, por un lado, el de recapitulación y por otro, el de reconsideración. No obstante, partimos de la hipótesis de que en dichos valores existen una serie de matices; y además, en algunos casos las fronteras entre dichos valores no son del todo nítidas. En el presente trabajo hemos estudiado los siguientes reformuladores: *azken batean, azken buruan, azken finean, hitz batean, hitz bitan esateko, hitz gutxitan, laburbilduz, labur esanda.*

Palabras clave: discurso; reformulación; recapitulativos; corpus.

ABSTRACT

Corpus based study of the recapitulative reformulation discourse-markers

In the present article we describe the corpus based study of the recapitulative discourse-markers. The essential aim of this work is to determine the discursive values. In the literature two main values have been distinguished: on the one hand, the reformulation value, and, on the other hand, the reconsideration value. Nevertheless, our hypothesis is that those values contain several aspects that should be studied and furthermore, in some cases the barriers between those values are not so clear. In the present work we have studied the following reformulation discourse-markers: *azken batean, azken buruan, azken finean, hitz batean, hitz bitan esateko, hitz gutxitan, laburbilduz, labur esanda.*

Keywords: discourse; reformulation; recapitulative; corpus.

Fecha de recepción del original: 21 de julio de 2014.
Fecha de aceptación definitiva: 10 de septiembre de 2014.